



Ifei' liRSI 111

\*\*\* iwe.-

# Bertsolaritzaz punturen batzuk

*Bertsolaritza zaharra eta berria*

Euskal Herri osorako bertsolaritzaz, ez zaharras ez berriaz, gauza bat bera esaterik ez dago. Bertsolaritzak ez dauka eskualde eta herrialde guztietan suzta eta tradizio berbera, ez eta eragin berdina ere. Gizartean eginkizun zabalagoa izan du leku batzuetan: gai

eta tematikaz aberatsago, bizitasun haimdiagoa eta sozial prestijlo gehiago. Beste herrialde batzuetan, ostera, asko moteldu da bertso-larritza aintzinatik gaurrera (hauxe azken urteotako berpizte aldia kontuan bartu barik). Arrazoiak era askotakoak izan daitezke: euskara bera ixildu dela; edo euskara ezberdinu ta aldendu egin dela berbeta askotan, eta halako batasun moduko bat ez izateak bertso-gintza landu orduan traba sendoak ezarri ditu. Hauxe dugu Bizkaiko kasua, esate baterako. Baina, hala ere, eman daigun badugula Bizkaiko bertso tankera bat. Badugu, zertan esanik ere ez, gipuzkoar bertso tankera bat ere, gaur Euskal Herri osoan nausi jartzen doana; eta Iparraldean berdin: lapurdi-behenapartar tankera bat, eta xiberutar bertso mota ditugu.

Euskerak berak prestijioetsuen iraun duen alderdietan, hantxe izan du bertso-larritzak ere bere berarizko mintegia. Gaurkoz ez dadukagu euskal bertso-larritza osoaren historia bat ere; Santi Onaindiaren Ian eskerga ONAINDIA, Santi, *Gure Bertsolariak*; Antonio Zabalak, «Bosquejo del versolarismo» liburuan Gipuzkoako bertso-larritza bakarrik aztertzen du. Eta zoritxarrez Bizkaiko bertso-larritza zaharra, Nafarroakoa eta Iparraldekoa aztertzeke dadukagu. Badago zeri ekin mutilak! Antonio Zabala jaunaren Ian txalogarriari eskerrak, *Auspoa* argitaletxearen bidez, Gipuzkoako bertso-larritza zaharra batu ahal izan da, zezer-txo izan ezik Gipuzkoa barrutira mugatu du bere lana eta. Sarritan entzun izan dugu bertso aldetik Bizkaia makalik ibili dela. Eta egia-ri zor zaiona ematekotan, Bizkaiko bertso-gintza zaharraren lekukotasun ugaririk daukagunik ezin esan. Baina dagoentxo ere batzeko oraindik! Azkue haundiaren Ian etenbakoari eskerrak batu ahal izan da gaur ezagutzen dugunetik gehiena. Baina harek ere ezin dena jaso, eta orandino azterketa Ian sistematiko bat egin beharra premina bizitan ikusten dugu: euskaldunen, batez ere edadekoen, buruetan bizirik dagozanen lehenagoko kanta, bertso ta koplak jaso egin behar ditugu lehenbailehen. Eta zuhur ez bagabiltza, laster berandu izango da. Nork aztertu du Txoriherri aldeko bertsolari-tza? Busturi-Gernika aldekoa, Durangoalde edo Arratia ingurukoa?

Sarritan idatzita egon ez arren, geure kulturaren zatr biziak ditugu horiek. Xiberun Etchaun Barkoxekoren bertsoekin egin dena, egin barik dago Bizkaian; eta Euskal Herriko beste leku askotan ere bai.

*Bertsolaritza zertarako, nondik eta nora*

Bertsolaritzak, dinogunez, Gipuzkoan izan du herritasunik eta sozial funtzinorik gehien: sagardotegietan, plazetan, bertso-papereetan... Xenpelar, Pello Mari Otaiio, Txirrita... Gudu aurretxoan, Txirrita ere tarteko zela, bertsoz osotutako aldizkari bat argitaratzen ere hasi ziren. Eta Euskal Herriko probintzia enparaduetan ere eragin nabaria erakutsi du Gipuzkoako bertsolaritzak, landuena eta giartsuena izan delako: Bizkai aldera artzain etorri eta gero bertonez ezkondu edo lekukotu zirenak arrastuak utzi dituzte hemengo herrietan. Edo Iparraldera berdin: Xalbador zenak ere bertsotarako sustraia Gipuzkoatik hara joandako zaldibitar artzain bategandik zituen; tabernetan kantatzeko oitura harek sartu ei zuen han.

Bertsolaritza herriak sortu du; herriak aintzat hartu duen lekuan eta neurrian loratu da bertsolaritza. Bertsolaritza humotu dadin eta bertso grina sar dadin, giroa lortu behar du herrian; kritikoa onak izateko literatura ona behar den legetxe. Giroa falta delarik, alperrekoa izango zen munduko dohain guztiak izatea ere. Eta Gipuzkoan bertsolaritzak beste inon baino bide gehiago urratu badu<sup>^</sup> horrexegaitik da: aintzat hartu duelako herriak, eta lehenago egiten ziren desapioetan jendea eurrezean batzen zelako bertso entzuzterea; ehtzuleek heuren ere bertsoaren amaiera zelan izango den asmatzeko zaletasuna izan dutelako. Funtsean, herria bera ere bertsolari izan delako.

Bertsoa, dibertsino edo humorezko aitzaki baino zerbait gehiago ere izan da. Tresna praktikoa eta erabilgarri bihurtu da bertsoa mendez mende, batez ere azken mendeotan paperetan idazteko oitu-

ra zabaltzen denerik: ezkontza galdutako bertsoak, mutil zein neska zaharrei egindakoak; karlista gerrateak direla-ta egindakoak... Bertsolari izatea profesino edo opizio bat izatera iritsi zen, zein eta arotzak, arginak edo errementariak berea zuten bezela. Gerrateak, ganboa ta oinaztarren arteko guduketak, karlistadetakoak bertso iturri oparoa izan dira... horixe izan da mende luzeetan euskai periodismo bakarra.

Gipuzkoan aintzinarik izah duen goitasun hori Bizkaian ez du berandu baino lortu. Bertsoaren funtzionaltasuna Enbeitatarrekin hasten da. Urretxindorra eta Balentin (honen semea) izan ditugu gudu aurrean eta gudu ostean bertso sua itxungi barik izan dutenak, gerra osteko ilundi beltzean. Heurok ditugu, bestalde, bertso lan-dua indartzen dutenak. Bizkaiko bertso eskola.

### *Gaur zertan da bertsoaren balioa*

Saio askotara joateko oitura duenak,- luzarora, gogait ere egin dezake, arrisku batzuk sasoez konpontzen ez baditugu. Bertsoari gauza batek eman dio edonoiz ere freskotasuna: bat batean botatzeak. Gauzak zorrotz eta bizi esateak; jendeari ardura dien gaiak erabiltzeak; gauza berriak edo lehen erabilitako gaiak beste era batera esateak... ots, bertsoak orijinaltasunez eta entzulea mire eginda uzteko eran botatzeak... horrek ematen dio edertasuna bertsoari. Baina saioaren saioaz bertsoak sortzeko iturria ere agortu egin oi da. Txirritak ere, gaur hain entzute aUndiko biurtu bada ere, bertsu igualtsuak botatzen zituen lekuan. Gaur ere berdin jazoten da: euskai plazetan, batez ere Bizkaikoetan, beti dakusguz 5-6 bertsolari, beti berdinak, eta antz antzeko bertsoak ere hamaikatxo entzun behar. Eta honen errua inondik ere ez dut uste bertsolarienak bakarrik denik. Bertso monotoni hori idea eta gai aldetik, esakera ta moldeen aldetik eta doinuan bertan ere igarten dugu.

Hala ere, bertsoa ez dugu bertanbehera utzi geinkeen zerbait: herri nortasunaren aide, kontzientziak iratzartzeko eta euskalduntasuna lertzeko berebiziko tresna dugu eta izan dugu. Egoeraren berrillli ondo dakite bertsolariek (neurri baten, jakifia): entzule askoren aurrean bertsoak biribil, zorrotz eta gatz-piperragaz bota ez eze, erizpide zentzudunak emateko ardura ere badute; gero ta erantzukizuti haundiagoa. Tresna efektiboa delarik bertsoa, danetarako erabilgarria: demagogiarako edo kontzientzigintza jator baterako: euskal unibertsitatea, amnistia, foruak, ikastolak, Jangileria... Bertso-Jariak herriko kazetariak dira. Goi mailako gaiak ezagutu eragin, morale] az ornidu. Euskaldunei politika zein sozial mailan ardura dien arazoen zabalkundea egin.

Baina bertsolaritza molde zarratu eta aldagaitz batzuen barman mugitzen da: zortziko nagusi eta txikia; 4 eta 5 puntuko bertsoak ia beti. Lehenago bertso molde aberatsagorik erabilten zen, baina gatz egiten zaie gaurko bertsolari gehienei 9 puntukoan bertsotan egitea. Baina utz dezagun forma kontu hori. Mamin aldetik dauka benetan aldatubeharra bertsoak. Bertsolaria literatura ikasi beharrean dago. Edo behintzat bertso egiterako errecurso berrien beharrez dago: irudiak, konparaketak... eta abar. Beste aldetik lehengo bertsolaritza zaharra aztertzea ere garrantzizkoa da, paperetan idatzia zein ahoz jasorikoa izan. Gaurko bertsolariek ez dakizkiten errecursoak jaso ditzakete zaharrengan ere. Baina ez da hori naiko: gaur bertso! ariak asmatu egin behar du, sortu gauza berriak. Eta uste dut Xalbador bide urratzaile izan bada euskal bertsolaritzan, ez dela bakarra.

Xabier Amurizaren izena ere derrior aitatu beharrekoa dugu gaurko bide urratzaileetan. Eskola berri baten egile dugu, zalantza barik, eta kartzelako erdi ixileko urteak gora behera, gauza ederrik emango duelakoan gagoz aurrerantzean ere. Bertsolari puntako eta zoli batzuen beharrezana dugu: bertso tankera berezi eta berriak izan- ditzagun gerora. Ahoz bota ez eze idatzi ere egun behar lukete gure bertsolariek egiten duten baino gehitxoago. Inork emandako gaiaren erritmura dantzan beti ibili barik,plazarik plaza bertso bo-

tatzen, ez ete da komenigarriago bertsolariek heurek aukeratu gaiak, ausnartu apurtxo bat, eta asmatu bertsoak, bertso landuak. Horrek sortu eragingo du bertsolaritza berria. Horretatik etorriko dira bertso eskolak,

*Biar etiiko bertsolaritza: Gazteria zaletu*

Bertsolaritzak, gainerako euskal oitura zahar eta estimagarri askok lez, euskaldunengan eta euskal gazteengan erakarpenik izan badu euskalduna eta zaharra delako izan du, neurri batetan. Eta erdal giroa nagusi denez, euskaltasunaren ezaugarri den guztia berpiztu eta indartu egiten delako. Euskal agerpen guztiak (dantZak, bertso ta koplak, Olentzero...) indartzeko abiada daroa Euskal Herriak. Baina euskal ekintza, hizkuntza ta euskaltasuna gizartean nagusitu dadinean, euskaldun izatea gizartean normalizatu dadinean, orduan bestela izango delakoan nago: agerpen bakoitza dinamikoa eta aurrerakoia den neurrian izango da bultzagarri, euskal gizartean funtzional izan daiten neurrian bakarrik indartuko da, eta ez zaharra delako, edo euskal senaren agerpen den neurrian bakarrik. Zaharra errekueratzea, gerora, espezializatuen arloa izango da, ziur asko.

Bertsolaritza gerora proiektatzekotan GAURKOTU eta FUNTZIONAL biurtu behar dugu. Orain artean nekazari giro batekoa izan badugu, gaur gizarte urbanora aldatzen doa. Eta aldakuntza horrek moldez eta irudiz ere berritze bat ekarri behar lioke.

Euskera beraren prolema dugu sustraian: baserritar, artzain eta arrantzale izan baditugu geure geurea dugun jakintza ta izakera hori ondoen jagon dutenak, behin gaurrera ezkeru uri ta kaleetan dago euskeraren etorkizuna.

Bertsolaritzak artzain kulturari ei ditu sorburuak. Eta Euskal Herri industriatu honetan 1977gn urtean baserritar semeak ditugu bertsolari guztiak, haren...baten. Uri ta kaleko bertsolaririk nekez

dugu oraindino. Baina frailegai, abadegai edo abade izandakoak bertsolari egin badira gerora, zergaitik ez gaur ikastoletan, ikaste-  
txeetan edo unibertsidadean ditugun gazteak ezin izan daitezke bertsolari? Herri ta bauzo mailan, ikastola, ikastetxe ta irakaskun-  
tza mailan *bertsolaritza planifikatu* bebarra dago. *Bertso eskolak*  
ban hor hemen eratu: horixe dugu biar etziko bertsolaritzaren etor-  
kizunik ziurrena. Orain artean ere borretatik erne dira bertso zu-  
haitzaren adarrik ederrenak.

### *Entzulego berria, bertsolari berriak*

Euskal giroak bultzatu eta posibletu ditu bertsolariak: inguru euskalduna eta bertsoak entzuteko zaletasuna. Euskal urietan zein neurritan betetzen diren baldintza horiek? Gipuzkoan lurra jor-  
tuta dauka bertsoak: gaur Donostia bera ipini daikegu bertsoaren uriburu; eta bertsoak entzule asko ditu Hernani, Bergara, Azpeiti, Errenderi, Zarautz... eta holako beste urietan. Bizkaian bertsolari-  
tzaren pixua txikertxoagoa dugu, azken urteotan gorzkada biz-  
korrean badoa ere. Behar bada, ez da bau bertsoak gustatzen ez zaizkiolako, bertsolari on gitxi izan ditugulako baiiio. Euskerak bertsogintzan bideak bain errez urratu ez dituelako. Hor ditugu Ormaetxe Mungiakoa eta bere sasoko beste batzuk: Txorierrin, Arratian, Durangoaldean... Baina doinuz pobre ta monotono eta puntuz ere urri, neurritz zehaztasun barik eta bertsoa gitxi landuta. Hori ikusten da lehenagoko bertsoetan.

Gaur, ostera, Bizkaiko bertsolariak beste edozein lekutakoen pare dagozela esan daiteke: Amuriza, Azpillaga, Lopategi, Jon Enbeita, Mugartegi...

Baina gero ta zorrotzago ta zuhurrago datorren entzulego honi ezin zaio eman lebenagoko produkto bera. Adibidez, Deustuko Uni-  
bertsidadera bertsolariak etorri ditenetan, ekitaldi azkenetan baka-  
rrik entzuten dituzte txaloak. Ikasle jendea arrazonamendu zaleago

eta otzagoa da, nonbait, bertsoaren aurrean. Aide ederra dago gaur Morgako baserritar jendea izan entzule, Abadinoko herri euskaldun industriatu bateko jendea edo Bilboko uniberts 'tari jendea izan entzule. Kulturak, problematikak, jakituriak... mila gauzak bereizten ditu alkarrengandik. Zirkunstantzi berrietan mugitu beharrean dago bertsolaritza. Nondik eta nora jokatu, ostera, gizarte urbano eta kulturaz jantziago den honi erantzuteko? Behar bada, bertsoa bertso izango bada, egitura bat, puntua eta neurria jagon beharko ditu gerora ere, hain erabagarri den forma hori jagon egin beharko du, bainan norabait bideginan hasi beharko du bertsolariak. Formak asmatzen, baina batez ere bertso mamina, gaia asmatzen. Zelan ez dakit. Ibilian asmatu beharko.

#### *Arindu eta aberastu bertsogintza*

Beti igualtsuak ditugu herriz herri egin oi diren saioak. Eta bertsolari izen berberak dakusguz hamaika egitarau txarteletan. Jakina! Bai gai jartzaileek eta baita bertsolariek ere jokera berdin samarrak dituzte, eta dauzkagun guztiei joko eman barik beti berdinak badabiltza danetan, gerora ere gogaikarri biurtzeko arriskua izango dugu. Eta gaur entzulearen txaloak eta oiurak irabazteko erabili oi diren berba sonatu, esakera biribil eta gogorak entzulego kritiko baten aurrean ez dirateke luzarorako. Sarritan euskal plazetan botatzen diren demagogi kutsuzko bertsoak efektiboak dira gaur, baina horiek ez dira iraupenezko bertsoak eta bide berririk zabaltzen ere ez dute lagunduko. Jende masak berotzeko bakarrik balio dute.

Euskal herrietan ditugun bertsolari edo gehienei eman behar zaie jokia, parte hartu eragin. Batzuk kaskarragoak dira, baina ibili barik inor ez da ontzen. Ona diren ala ez, gerora ikusten da, baina behintzat erdi baztertuta dagozen bertsolari horiei, oraindino gaztetxo diren horiei aukera bat eman behar zaie. Naiz eta errentableak



ez izan diru asko batzeko. Goi mailako horiek lain atsegin edo txukuntasun eskaintzen ez dutelako ezin dira betirako ahaztu. Jai antolatzaile kontutan izan behar lukete «euskal kulturaren aide ekite hori» bere osotasunean hartu behar dela, interes hutsei begiratu barik.

Giro berri bati erantzungo dioten bertsolari berrien arrobia hortxe planteatu behar dugu. Saio ugari ta danetarikoak egin. Sarritan derriorra dute plaza txikietan baino ez bada ere ibili egitea bigarren mailako bertsolariok; naiz eta askorentzat gogaikarri izan.

### *Plazaratu aurretiko jardunketa*

Politika taldeak, alfabetatze edo amnistiaren aldeko taldeak eratu oi diren antzera, zergaitik ez egin herrietan bertsozale taldeak? Gela bat zuzendu, bertsolari dexente bati hainbesteko bat ordaindu eta astero astero zaletasuna dutenei bertsotan irakatsi. Hori egin ezinik ez dago. Herrialde ta eskualde mailan egin daitezke behintzat holako taldeak: Gernikan, Mungian, Bilbon, Durangon, Markinan, Ondarroan eta abar.

Uste uste barik, bigarren mailako bertsolarientzat egin diren rxapelketak ekarri diote onura ederra bertsolaritzari. Anorga, Idiazabal, Mallabia... Urtero egiten diren txapelketotan nabarmendu dira Murua, Aittola, Zeberio, Intxaurrea, Areitio, Elgetzu eta beste hilada luze bat.

Baina aurrerantzerako eskualdeka edo herrialdeka plangintza zehatz bat egin behar litzateke; ikastola ta irakastetxe mailan ere berdin. Lanak koordinatu eta metodologia bat egin. Metodologiarena dugu hain zuzen ere akatsik nagusiena. Berez berez barik, pausuka eta mailaka irakastera heldu behar da. Orain artean ere Lauroko ikastolan, Derioko Seminarioan eta beste leku batzuetan ekin deute fin arlo hau lantzeari. Etorriko da hortik ere fruturik gerora.

Zer langai erabili bertso irakaspiderako? Bilbo ta Loiolako Herri Irratiek, badabe hainbat Ian, AUSPOA argitaldariko liburu txor-ta sendoa, Azkueren obrak, eta gure herrietan agure ta zaharrek dakizkiten lehenagoko bertsoak. Handik eta hemendik batzen den material guztia batu ta koordinatu ezker, Ian polita egin daiteke bertso irakaspiderako. Eta ekinez ekinez koordinaketa horretatik batzorde bat izendatu leiteke arlo guzti hau zuzenduko lukeena. Eta ez dut uste bertsolaritza irakaskuntzarako sistematizatzea pekatu bat denik. Sarritan aitatzen diren berezkotasuna, txikitako dohaiak,... eta gainerako guztia beharrezkoa da, baina dohaiok izan arren ere, landu barik itsusi ematen du plazan bertsolariak. Eta here ahalmenak ematen dion guztia ezin du erabili bertsotan, irakatsiak hartu ez dituelako.

### *Bertsolaritza eta euskara*

*Zein* euskara erabili bertsotan egiterakoan? Ez da errez horri erantzutea. Gaurkoz behintzat bakoitzak ahal duena erabilten du, hiru-lauk izan ezean. Gure entzule jende xehea izan behar dugu beti kontuan. Eta berbeta erreza eta bertakoa erabiltzeak ez du esan gura gauza sinpleak esan behar direnik. Ahal dala, hizkera zuzena ta soila erabiltea komeni da. Esakera barroko edo biurriegiak entzulea nahastatu baino ez dute egiten. Baina askotan gauzak errez esaten ere jalcin egin behar da!

Bizkaiko bertsolariek kriterio jatorra darabile euskera aldetik. Gipuzkoara doazenean bertako erara egiten dute, erdi batuan. Baina Bizkaiko herrietan dabilzanean, ostera, bizkaieraz egiten dute. Azpillagak, Lopategik, Amurizak, Enbeitatarrek, esaterako.

Beste bertsolari askori ez zaio erreza kriterio hau: nahastatu egiten dituzte euskalkiak, igarri barik. Bertsolariek ere hizkuntza aldetik zehaztasun baten beharra dute: aditz sistemak ikasi eta bizkaieraz zein gipuzkeraz- erabilteko gai izan. Euskal literatur lanak

noizik behin irakurri. Bizkaitar bertsolariek «dutez», «etor lezake», «deguz»... eta holako gauza arraroak erabiltzeak pena handia ematen digu. Gipuzkeraz edo batuan bertsotan egiten jakitea ondo ere ondo dago, baina gogoan izan norbere euskera landu ta zehaztu ezkerro askozaz ere errezago izango zaigula bertsotan egitea.

Beste hamaika arlo badira bertsolaritzaz esamesarako, baina urrengoan gehiago eta obeto.

*ITURRIKO*

# **1 A. AiARTZA'REN GOZOTI:GIA**

- 1) Makarroiak**
- 2) Pastak**
- 3) Arrautz-opilia k**
- 4) Gainerakoak**

**G. Mola kalea, 11**

Urrutizkina: **730242**

**Amorebieca (Bizkaia)**